

197/2019 EBAZPENA, irailaren 29koa, Barneko zuzendari nagusiak emana, Donejakue bideko lehendabiziko etapan, Nafarroako sarreran, ekialdeko ibilbidetik igarotzeko neurri murriztaileak ezartzen dituen, 2021ko azaroaren 1etik 2022ko martxoaren 31ra bitarte.

Iragarki hau gordeta dago

Donejakue bidearen Nafarroako tartea behin betiko mugatu eta hura babesteko araubidea ezarri zuen abenduaren 14ko 290/1988 Foru Dekretuak, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko ibilbidea arautzen du.

Frantziako Donejakue bideko lehenbiziko etapan, Nafarroako sarreran, bi ibilbide daude: mendebaldekoa, Donibane Garazitik abiatuta Luzaidetik eta Ibañetako mendatetik Orreagara doana, eta ekialdekoa, Donibane Garazitik abiatuta Hontotik, Oriundik eta Lepoederko mendatetik Orreagara ailegatzeko dena. Ekialdeko ibilbidean 1.200 metroko desnibela gainditzen da; izan ere, Donibane Garazi 154 metrora dago itsas mailaren gainetik eta Lepoederko mendatea, berriz, 1.432 metrora. Gainera, tartean beste desnibel batzuk ere badaude.

Desnibel hori gainditzeko, etapa horri heltzen dioten erromesek prestaketa fisiko egokia izan behar dute, eta, ikusi denez, halakorik ez da gertatzen portzentaje handi batean. Horretaz gain, egin beharreko esfortzua are handiagoa da elurra dagoenean edo eguraldia txarra denean, hori guztia kontuan hartu gabe halakoetan eraman beharreko ekipamendu materiala, zeina, ikusi denez, oso maiz ez baita eramaten.

Kontua da ekialdeko ibilbidea altura handian sartzen dela Nafarroara, 1.288 metrora itsas mailaren gainetik. Eta Nafarroako tarte horrek ez du aterabiderik Lepoederko mendi leporaino, Nafarroan sartu eta 5 kilometrora. Seinalizazioa hobetzeko lanak etengabe egin dira, eta, aldi behin, erabiltzeko moduan dagoela egiaztatzen da. Egun, zehatza da eta bisutsetan baino ez daiteke hari jarraitzeko problemarik egon.

Edonola ere, oraindik ere egiten dira erreskatatzeko esku-hartze profesionalak zein boluntarioak, askotan erromesen akidurak eta informazio eta prestakuntza faltak eraginda, ekialdeko ibilbide hori hain da gogorra. Egoera hori bereziki larriagotzen da neguan, erreskateak egiteko baldintzak latzagoak direnean; izan ere, salbamendu taldeko kideen bizitza arriskuan jar daiteke, eskualdeko orografia eta klimatologia direla kausa eta iritsi, lokalizatu eta ebakutzeko oztopo larriak direla bide.

Erromesen segurtasuna bermatzearren, Barneko zuzendari nagusiaren uztailaren 1eko 152/2015 Ebazpenaren bidez, neurri murriztaileak ezarri ziren Donejakue bideko lehendabiziko etapan, Nafarroako sarreran, ekialdeko ibilbidetik igarotzeko, azaroaren 1etik martxoaren 31ra bitarte, eta desagertua den Nafarroako Larrialdietako Agentziaren esku utzi ziren igarotzeko murrizketatik salbuesten duten berariazko baimenak.

Barneko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 487/2016 Ebazpenaren bidez, ordea, neurri murriztaileak ezarri ziren Donejakue bideko lehendabiziko etapan, Nafarroako sarreran, ekialdeko ibilbidetik igarotzeko, 2016ko azaroaren 1etik 2017ko martxoaren 31ra bitarte, eta indarrrik gabe utzi

zen arestian aipatutako uztailaren 1eko 152/2015 Ebazpena, eta berariazko baimenak emateko aukera bertan behera geratu zen, haien aplikazioaren konplexutasuna eta zailtasuna ikusirik.

Ildo horretan, Barneko zuzendari nagusiaren urriaren 23ko 315/2017 Ebazpenaren bidez eta Barneko zuzendari nagusiaren urriaren 17ko 250/2018 Ebazpenaren bidez, Barneko zuzendari nagusiaren urriaren 1eko 283/2019 Ebazpenaren bidez, eta Barneko zuzendari nagusiaren urriaren 23ko 180/2020 Ebazpenaren bidez, neurri murriztaileak ezarri ziren Donejakue bideko lehendabiziko etapan, Nafarroako sarreran, ekialdeko ibilbidetik igartzeko, hurrenez hurren, 2017ko azaroaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra bitarte, 2018ko azaroaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra bitarte, 2019ko azaroaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitarte eta 2020ko azaroaren 1etik 2021ko martxoaren 31ra bitarte.

Azken urteetako esperientziak erakutsi du komenigarria dela Donejakue bideko lehendabiziko etapan, Nafarroako sarreran, ekialdeko ibilbidetik igartzeko murrizketari eustea, bere horretan, partikularren eta erreskateko langileen (profesionalen zein boluntarioen) segurtasunari begira.

Horrenbestez, larrialdien kudeaketan eskumenak dituzten zerbitzuen adostasunarekin eta kontuan hartuz urriaren 21eko 487/2016 Ebazpena onesteko egindako kontsultak, ikusirik ekialdeko ibilbidetik igartzeko neurri murriztaileei bere horretan eutsi behar zaiela.

Ikusita Nafarroako Gobernuak segurtasun publikoaren arloan dituen eskumenak, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearekin bat, baita Nafarroako Gobernuari babes zibilaren arloan eta larrialdiak kudeatzekoan dagozkion ekintza publikoko neurriak ere, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearekin bat, eta irailaren 8ko 198/2015 Foru Dekretuak, zeinak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezarri baitzuen, Barneko zuzendari nagusiari aitortzen dizkion eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Jendearen segurtasuna dela eta, neurri murriztaileak ezartzea Donejakue bideko ekialdeko ibilbidetik igartzeko, Nafarroako lehendabiziko etapan, eta xedatzea nahitaezkoa izanen dela 2021ko azaroaren 1etik 2022ko martxoaren 31ra arte Donejakue bideko mendebaldeko ibilbidetik igartzeko (Luzaide).
2. Nafarroan sartzeko ekialdeko ibilbidea ixtea egun horien artean, 43°3'2,02"N eta 1°16'6,04"W koordinatu geografikoetan, Bentartea mendi-lepotik hurbil.
3. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari agintzea jar ditzala igartzeko debekatzeko seinalizazioa eta igartzeko galarazteko beharrezko elementuak.
4. Foruzaingoari agintzea ebazpen hau betetzen den edo ez zain dezala.
5. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiari eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari agintzea ebazpen honi publikitatea eman diezaiotela Donejakue bideari buruzko web-orrietan, agentzietan eta Donejakue bideari buruzko publikitate edo informazioko beste baliabide batzuetan.

6. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, orok jakin dezan.

7. Ebazpen hau jakinaraztea Babes Zibilerako Zerbitzuari eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuari, Foruzaingoari, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiari, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari, Donejakue Bideko Lagunen Nafarroako Elkarteari, Donejakue Bideko Lagunen Pirinio Atlantikoetako Elkarteari, Luzaideko Udalari, Orreagako Udalari, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzari eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari, eta ohartaraztea haren kontra gora jotzeko errekurtoa jar daitekeela, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari zuzendua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoarekin bat. Administrazio publikoen kasuan, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jar dezakete zuzenean, galarazi gabe Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako alde zuzeneko errekerimendua.

Iruñean, 2021ko irailaren 29an.–Barneko zuzendari nagusia, María Amparo López Antelo.